

**EROSKI*k* bi herri horietan dituen hipermerkatuen aldamenean daude**

**EROSKI-K GASOLINDEGI GEHIAGO IREKI DITU GIPUZKOAN: ORDIZIAN ETA AZKOITIAN**

- **Eskualdeko preziorik onena dute, eta autozerbitzu eran funtzionatzen dute 24 orduak**

**Ordizia (Gipuzkoa), 2019ko urtarrilaren 29a.-**[EROSKI](#)**k bi gasolindeg**i inauguratu ditu Ordizian eta Azkoitian, eta biek autozerbitzu eran funtzionatuko dute 24 orduak. Gasolina 95 eta A motako gasolioa izango dute. Hala, EROSKI*k* hemeretzi gasolindegi ditu orain Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan.

Ordizian inauguratu duten zerbitzugunea EROSKI hipermerkatuaren aldamenean dago, Irun-Bilbo errepidearen aldamenean eta bi erregai hornigailu ditu. Bihar inauguratuko dute, berriz, Azkoitiko zerbitzugunea, Bazterretzeko auzoan, EROSKI Urola hipermerkatuaren aldamenean, eta hornigailu bakarra izango du. Bi gasolindegiek 60.000 litro erregai gordetzeko gaitasuna dute, bi erregai motatan banatuta, hau da, A motako gasolioa eta Gasolina Super 95. Kooperatibaren gogoa da bere dendaren lehiakortasuna hobetzea bezeroei zerbitzu osoago bat eskainita.

EROSKI*k* prezio apalak eskaini ohi ditu erregaia saltzean, eta, oraingo honetan ere, eskualdeko preziorik onena du. *"Gure ezaugarria da, besteren artean, Bezero Bazkideei dirua aurrezteko bideak ematea EROSKI Club txartelaren bitartez; izan ere, erabil daiteke EROSKIren gasolindegietan ere Travel Club puntuak eskuratzeko eta berebat pilotutako aurrezpena erregaitan trukatzeko"*, esan du EROSKIren gasolindegietako arduradunak, Francisco Javier Fontanedak.

BP petrolio operadorea da EROSKIren hornitzailea haren gasolindegi guztietan. Hornidurarako, CLH operadore logistikoa erabiltzen du. Kooperatibak 50 gasolindegiko sarea zuen iaz, eta, EAEn eta Nafarroako Foru Erkidegoan ez ezik, gasolindegiak ditu Andaluzian, Aragoian, Asturiasen, Balearretan, Kantabrian, Katalunian, Gaztela-Mantxan, Gaztela eta Leonen, Valentziako Erkidegoan, Murtzian, Galizian eta Errioxan.

---

**EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA**

**CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)